

# MARTXOAREN 8AN LANTZEKO JARDUERAK

*Bizirik, askeak eta ekintzan eta erreibindikazioetan elkarturik*

## MARTXOAREN 8A

EMAKUMEAREN NAZIOARTEKO EGUNA




enseñanza

#VIVASLIBRESUNIDAS  
#ACCION8M

FEMINISTA NAIZ.

FEMINISMOAK ASKE  
EGINGO GAITU.



[www.fe.ccoo.es](http://www.fe.ccoo.es)

# MARTXOAREN 8AN LANTZEKO JARDUERAK

## FEMINISMO GEHIAGO HEZKUNTZA GEHIAGO DA.

### Hitzaurrea

CCOOen Irakaskuntza Federazioak emakumezkoen eskubideen alde etengabe ari da borrokatzen, egun guztiak baitira martxoaren 8. Aurten, “Hezkuntza, ekintza eta erreibindikazioa” goiburua duen borroka.

Ekitatearen ikuspuntutik, berdintasunaren aldeko apustua eta lan egiteko egun guztiak aproposak direla kontuan hartu behar dugun arren, zera proposatzen dugu: Emakumearen Nazioarteko Eguna gai hauek hilabete osoan zehar planifikatzeko aitzaki izan dadila, gai horiek noizean behingoko jarduera izatera mugatu ez daitezzen.

3/2020 legeak (LOMLOE), 2/2006koa aldatzen duena, bere garapen osoan, transbertsalizatu eta behartu egiten du emakumeen historiari, koedukazioari, berdintasuneko hezkuntzari, rol sexistak edo indarkeriak ezabatzeari eta bizipen osoari buruzko gaiak sartzera.

Feminismoaren eta emakumezkoen eskubideei bultzada berri garbiagoa, irmoagoa eta zehatzagoa emateko behararren inguruan, indarkeriaren aurka eta gizarte erronka berrien aurrean, gaur egun sortzen ari den gizarte adostasuna mundu osora zabaldu da.

Halere, oraindik bada egitekorik. Aldaketak motelak dira eta, askotan, gutxiegiak. Izan ere, emakumeak eta neskak egoera okerragoan dira, gutxietsiak, lan gehiago egin arren soldata urriagoak jasotzen dituzte, adierazpen ezberdinetan indarkeriaren jomuga dira eta, beraz, era autonomoan eta aukera askatasunaren bidetik garatzeko egokiera gutxiago dute.

Hezkuntzaren eremuan, guztiz garrantzizkoa da emakumezkoen eta gizonezkoen berdintasuna eduki zehatzekin lantzea, ikasleek desberdintazunei buruzko kontzientzia handiagoa lortu, harremanetan aritzeko beste modu ezberdina erakusten duen errealitatearen ikuskera landu, gaitasun kritikoa eta rol sexistak ezabatzea barne hartu eta munduan kokatzeko era berriak bilatzeko aukera izan dezaten. Bi aldiz garrantzitsua da jarduera honi hezkuntzaren lehen urratsetatik ekitea eta baita gizakion bizitza osoan zehar ere.

Aurtengoa bereziki konplexua da. Izan ere, mundu mailako pandemiak, populazioaren erdia esklabo bihurtu eta gaizki tratatu, gizakion arteko aldeak handiagotu eta gehiago dutenetan baino ez pentsatzuz banatu nahi duen sistema kapitalista, neoliberal eta patriarkal baten gabeziak agerian jarri ditu.

Osasunerako txertorik hoberena medikoa ez ezik, feminismoa ere bada, emakumezkoen bizitza ez ezik pertsona guztioena ere hobetzen laguntzen baitu.

Gida hau, Emakumeen Nazioarteko Eguna ospatzeko, burutu daitezkeen jarduera batzuren adibide bat besterik ez da, ikasleen garapen integrala lortzeko tresna gisa.

Ikastetxe guztiak animatu nahi ditugu berdintasunerako, koedukaziorako eta ikasleen nortasunaren garapen integralerako neurri zehatzak jasotzen dituen plan bat ezar dezaten. Aipatu plana helburu hauetara bideratuko

da: sexismoa eta emakumeen inbisibilizazioa ezabatzea eta gure ongizate, gurari eta eskubideei eta, azken finean, gure beharrei dagokienez, gaitasun osoko pertsonak izatera, sailkatu, hierarkizatu eta gure askatasuna baino murrizten ez duten rol itxiak esleitzen gaituen sistema baten lokarri zapaltzailerik gabe.

Feminismoa balio guzti hauen transmsiobide izaten ari da, harremanak, pertsonen beraiekiko eta ingurunekiko pertsonen bizipena eta baita askatasunaren bidetik, banakako eta talde-garapenari ekiteko ere. Gainera, izateko, beste pertsonak izaten uzteko, errealitateak ezagutze-ko eta gizarte zuzenagoa, askeagoa, enpatikoagoa eta berdintasunean, askatasunean, segurtasunean eta pertsona guztiak berdintasunez onartzeko indarrak batzeko.

Feminismoa ilusio esparrua bihurtu da gazteentzat, askatasun, eskubide berdintasun eta gizarte bilakaerari bide emateko batze kolektibo gisako premisak bereganatu baitituzte.

## HELBURUAK

Genero berdintasunari eta koedukazioari dagokienez, ikasleak sentsibilizatu eta inplikatzeko, norbanakoaren askatasunari bide emateko.

Gizonezkoen eta emakumezkoen arteko desberdintasunez jabetzea.

Emakumezkoen jakituria bistaratzea, beren genealogia eta eskubideen aldeko borroka.

Feminismoa mugimendu kolektibo, integratzaile eta garapeneko gisa onartzea.

Estereotipo sexistak ezabatzea.

Berdintasunarekin bat datozen harreman moldeak bilatzea.

Indarkeriaren adierazpenez ohartaraztea.

Lan eremuko desberdintasunak ezagutu eta hausnartu.

Hezkuntza emozionalean, emozioen gestioan aurrera egitea.

Hezkuntza erkidegoarekin batera, taldean, koedukazio, berdintasun eta ekitate-esparru bat eraikitzea.

Espiritu kritikoa garatu eta norbanakoaren berezitasunak bere gain hartzea, gure gizarte, gorputz eta harreman-errealitateetan aske egiten gaituen batasun eta harreman osagai gisa.

## METODOLOGIA

Metodologia praktikoa erabiliko dugu: alde batetik, partaidetzan, lanikdetzan eta elkarlanean ardaztutako jardueretan eragin zuzena izango dutenak ikasleak izan daitezzen; eta, bestetik, erreferenteak eduki ahal ditzaten, taldeako lanaren bidetik, klaustroaren edo eskola kontseiluaren bidetik, esaterako, edo esparru ez ohikoetan edo maskulinizatueta bere jarduera betetzen duten emakumeen bidetik.

Elkarrizketa, eztabaida eta hausnarketa erabiliko dira, garapen kritikoaren eta banakako motibazioaren iturri gisa jarduera kolektibora iristeko.

Ikasleen partaidetza lehenetsiko da, adierazpide, eztabaidarako, elkarri-  
zketarako eta hausnarketarako bideak izan ditzaten.

Metodologian oso garrantzitsua izango da ikasleen edozein gai, galdera  
edo zalantza erantzunik gabe ez uztea eta, erantzunik ezagutu ezean,  
horrela gertatuz gero, gabezia hori onartu beharko da baina erantzuna  
aurkitu daitekeela beste pertsonen laguntza eta lankidetzaz.

Oinarritzko eskubide gisa, lege berriaren garapen arauemaile eta eraginko-  
rra:

*bis) Hezkuntzaren kalitatea ikasle guztientzat, sorlekua, sexu edo arraza-,  
etnia- edo geografia-jatorria, desgaitasuna, adina, gaixotasun, erlijio edo  
sinesmen, sexu orientazio edo identitate edo beste edozein baldintza  
pertsonal edo sozialagatik inolako diskriminaziorik gabe.*

*b) Hezkuntzaren, hezkuntza inklusiboaren eta eskubideen eta egokieren  
berdintasunaren bidetik, emakumezkoen eta gizonezkoen artean,  
nortasunaren garapen osorako aukera berdintasunak bermatuko dituen  
ekitate, edozein bazterkeria gainditzen eta hezkuntzarako sarbide  
unibertsala ahalbideratzen lagundu eta desberdintasun pertsonalen,  
kulturalen, ekonomikoen eta sozialen osagai konpentsatzaile gisa eragingo  
duena, edozein desgaitasunetik datozenei arreta berezia emanaz,  
Espainiak, 2008an berretsitako Pertsona Desgaituen Eskubideei buruzko  
Konbentzioan ezarritakoaren arabera.*

## IKASTETXEAN NOLA LANDU?

Funtsezko jarduera eskolara bertaratze edo erdibertaratzearen arabera  
izango da, ikastetxearen segurtasun neurrien arabera. Proposamena  
kanpoan burutzea da, ikastetxeko patioan eta, beti, osasun neurriak  
beteta. Zatika, etapatan edo burbuila-taldetan egin dezakegu.

Hau da, hain zuzen ere, martxoaren 8a hilabete osoan zehar lantzeko  
proposatzearen arrazoienetako bat: jarduera guztietan sakondu eta  
burutu ahal izateko balio ez ezik, jarduerak pertsona gutxiagorekin  
burutzeko aukera ematen digu ere.

Ikastetxearen kide guztien artean manifestu bat lantzea bultzatuko dugu.  
Sortzeko, testua ataletan zatituko dugu, ikasleek ikus dezaten lana  
amankomunean, adostuta eta talde feministek funtzionatzen duten  
lankidetzaz moldeetan burutu dela.

Aurreiritzi, sexismo eta bortxakerietatik libre dagoen hezkuntza baten  
alde, elkarrekin, lankidetzan eta ekitatiboki jarduteko lagunduko gaituen  
erreferente gisa balio izango du.

Zenbait hilabete lehenago, ikastetxean berdintasunerako eta koedukazio  
hezkuntza baten garapenerako neurrien plan bat martxan jarri beharko  
dugu, mundua ulertzeko beste modu bat eraikitzeari aukera emango  
diona. Horretarako, CC00ek bere laguntza eta aholkularitza eskaintzen  
du.

Agintariak, kolektibo feministak eta zonaldeko emakume taldeak  
gonbidatuko ditugu, ikasleen banaketaren eta manifestuaren burutze  
garapenaren arabera. Gainera, prozesu guztia antola dezatela eskatuko  
diegu hasieratik inplika daitezen.

## FUNTSEZKO GAITASUNAK

LOMLOE legearen araudi garapenaren arabera, funtsezko gaitasunak  
egokitu eta taxutzen joan beharko dugu eta baita Legearen premisak  
betetzeko behar diren besteak ere.

• **Hizkuntz gaitasunak, ikaskuntza metodologia eraginkorren bidez.**  
Ahozko zein idatzizko komunikazioa, hasierako etapetan ipuinen bidez



funtsean eta formatu ezberdinetako materialak, egunkarietakoak, ikus-entzunezkoak, ulermenari eta egoera ezberdinen azterketari laguntzeko, lan eta proiektu praktikoen bidez, hurrengo hezkuntza etapetan. Kultura-, genero- eta sexu-aniztasunarekiko harremana eta ezagutza. Bizikidetzako giro batean harremanak izatea bideratzen dituzten trebetasun sozialak azaltzea.

- **Gaitasun matematikoa eta zientzia eta teknologiko oinarriko gaitasunak.** Proposatzen diren jardueretatik batzuk logikaren bidetik pentsatzen, galderen bidez problemak ebazten laguntzen dute. Sistema fisiko, biologiko, lurra eta espazioaren bidez esperimentatzea.

- **Gaitasun digitala.** Ikus-entzunezko baliabide ezberdinen, formatu digitalen, Internet-eko bilaketen bidez, ulermena, eta aurkitutako azterketa eta sintesia lantzea. Informazioa trukatzeko, lankidetzan aritzea. Gai ezberdinetako informazioa kudeatzea, formatu eta hizkuntza ezberdinak ulertzea.

- **Ikasten ikastea.** Proposatutako jarduera guztiek, harremanetarako molde berriak eta mundu honetan egoteko moduak aurkitzeko jakin-mina pizten dute. Norbere eta gure inguruan ditugun gainerakoen ezagutza. Ikaskuntza autonomia sustatzen da, norbere eta gainerako pertsonen erritmoa errespetatuz, azterketaren, hausnarketaren eta behaketaren bidez.

- **Gizarte eta hiritar gaitasunak.** Proposatutako jardueren bidez, praktika on amankomunei lotutako banakako- eta taldekako-prozesu baten garapena lortu nahi da eta taldekako lanaren kudeaketa positiboa. Helburua zera da: maila ezberdinak ezagutu, ulertu, eta erabakitzea, pertsonen arteko desberdintasunak orekatu, elkarbizitza giroa hobetu eta beste pertsona batzuk, beste gizarte talde eta, horienganako begirunea mesedetuz kultura batzuk ezagutzeko indibidualtasuna gaitzitzea. Gizarte trebetasunen garapena, hala nola, enpatia, asertibitatea,

autokontrola, bizipen amankomuna, mugak. Klabe demokratikoan pentsatu, indarkeria eta elkarrenganako ulertze gabezia sustatzen dituzten jarrerak berriz pentsatu eta baita proposamenetan aurreratu eta gatazkak positiboki erabakitzea ere.

- **Ekimena eta espirtu ekintzailea.** Norberaren ideiak lortzea sustatzeko indarrak ezagutzea, sormena landu eta bizitza emantzipatzailea bideratzeko norberaren baliabideen garrantzia azpimarratzea. Ideia kolektiboen askatasunetik, pentsamendu kritikora iristea, gorabeheren aurrean gaitasun proaktiboagoa eta erreakzio gutxiagokoa, norberarentzat eta gainerakoentzat baldintza hoberenetan gatazkak nola konpondu behar diren pentsatzea.

- **Kontzientzia eta adierazpen kulturalak.** Lan proposamenaren bidetik, funtsezkoa da pertsona eta elkarte ezberdinen bizipen kulturalak ikasi, baloratu, duindu eta errespetatzea. Gure erkidegoen aberastasun kultural eta folklorikoa ezagutzea eta baita, oro har, emakumeen kultura, literatura eta artea ere. Gelako haurren adierazpen kulturalak ezagutzea, errespetuaren eta kulturen arteko armoniaren bidetik.

## ORIENTABIDE METODOLOGIKOAK

- Gelako ikasleei egokituko da, gela bakoitzaren dibertsitatearen, banakako eta taldekako beharren, bere kokapen geografikoaren eta idiosinkrasiaren arabera, behar diren aldaketak txertatuz.

- Parte hartzailea, inductiboa eta bideratzailea.

- Konfidantza giroa sortzea eta sentimenduen, emozioen edo nahien adierazpena erraztea, edozein gai edo zalantzari erantzuna emanez. Guztiz garrantzizkoa izango da dena ez dakigula ezagutaraztea, baina

erantzunak aurkitzeko baliabideak badaudela eta lankidetzak, elkarlanak eta jakituria kolektiboak asko lagundu gaitzaketa.

- Taldearen barruko jardueretan, ildo nagusi gisa, afektua garatzea, ikuspuntu horizontaletik begiratuta (ikasleen artekoa) zein bertikaletik (helduengandik ikasleenganako afektua eta ikasleengandik helduengandik). Trebetasun enpatikoa komunikagintzan eta baita trebezia positiboak ere, tratu ona eta harreman baketsu eta positiboak sustatzen dituen harreman modu baterako.
- Ez utzi galderarik erantzun gabe. Jakin-minak jakingura, ideiak, eta ezagutzeko nahiak sortuko ditu, eta horiei erantzun behar zaie.
- Banakako eta familia errealitate bakoitzari emandako garrantzia orekatzea.
- Banakako erritmoak errespetatu eta taldekakoak adostea.
- Sexista, arrazista, LGTBQfobikoa, kapazitista ez den edo sentitzen duzun edo daukazu araberako pertsonak hierarkizatzea daraman hizkuntza ez erabiltzea.
- Hizkuntza, zure portaera, komunikagintzako seinale errezeptiboak egokitu.
- Kasu guztietan, neurri berean, interesa erakutsi.

## JARDUERAK

Jarduera guztiak modalitate presentzialera edo distantziara egokitu daitezke hezkuntza etapa ezberdinetan.

## Haur Hezkuntza

### Helburuak:

- Ingurunea eta beraren erlazioak behatu eta aztertzea.
- Afektibitate gaitasunak garatzea.
- Komunikazio gaitasuna eta bere adierazpideak garatzea.
- Norkbere errealitatea ezagutzea eta baita gainerakoena ere.
- Bizikidetzaren arauak ulertzea. Norberaren mugak lantzea.

### 1. Pintatu eta koloreztatzen dugu.

Ohiko gailu digitalen bidez, eranskinaren marrazkiak bidali. Ikasle bakoitzak bineta bat aukeratu du. Koloreztatu ondoren, bere arduradunari eskaneatzea edo argazkia egitea eskatu dio, irakasleari helarazteko.

Gela birtualean, bineta bakoitza zergatik aukeratu dugun komentatu, dakarren esaldiari buruz hitz egin eta ozenki irakurriko ditugu ikasleek uertzen ez dutena galdetu edo beren iritzia eman dezaten.

### Bineten elkarrizketak:

A- Nire gorputza nirea baino ez da. Zure gorputza, zure pentsamendua eta zure lorpenak zuri bakarrik dagozkizu.

B- Feminista naiz. Feminismoak aske egingo gaitu.

C- Elkarrekin arituz, nahi dugunera iritsi gaitetzke.

D- Gure mundua bidezkoa dela uste al duzu? Ez, baina elkarrekin alda dezakegu.

### Kontuan hartzekoa:

Komenta ezazu ikasleekin, gauzak elkarrekin egitearen garrantzia. Banakako erritmoak errespetatu behar dira baina, pertsona gehiagorekin gauzak eginda emaitza hobeak lortzen dira.

Kontuz! Gogoratu banakako botereari eta askatasunean pentsatu eta erabakitzeke energiari bultzada bat eman behar zaiola; horregatik, beste

pertsonekin gauzak egiteaz hitz egiten dugunean, ez gara esaten ari, gauzak egiteko beste norbaiten laguntza behar dugunik.

## 2. Zer jantziko dut?

Posta elektronikoaren bidez, El mundo raro de Mermel materiala jaisteko esteka bidali.

### Ipuin liburua:

<https://fe.ccoo.es/c5ddb70303a425af5546e4102507e9e000063.pdf>

### Gelan erabiltzeko materiala:

<https://fe.ccoo.es/2dd86628b2043a0a81854f6d041cfbde000063.pdf>

Qué me pongo? 5. lan unitateari ekingo diogu. Ikasgelan bertan edo birtualki lan egiteko orientabideak jarraitu. Aurretik, gelakide guztiekin ipuina irakurriko da.

## 3. Horrela dira nire familiako emakumeak, nire ingurune hurbila edo nire ikastetxea:

Aurretik, familiekin arituko gara, etxeko emakumeen zenbait argazki bil dezaten. Zuhaitz bat marraztuko da eta adar bakoitzetik emakume horietako bat aterako da, bere argazkia eta emakume hori zein den, nola den/zen, zer egiten duen/zuen dioen parrafo txiki bat itsatsiko dugu, betiere familien eta ingurune hurbilaren laguntzaz.

Ondoren, erakustaldi bat egingo dugu pasilloan, baso bat irudikatuz non, zuhaitz ezberdinak azalduko diren, ikasleentzat garrantzitsuak diren emakumeen argazkiekin.

Jarduera hau ikastetxearekin, irakasle emakumeekin, beste geletako ikasle neskekin, etabekin... burutu daiteke.

### Kontuan hartzekoa:

Familia homoparentalaren kasuan, ingurune hurbileko emakumeak aukeratuko dira. Aukeratutako familiarekin ere egin daiteke, gure gustukoak diren auzotarrekin, izebekin, lagun hurbilekin. Adin gabekoa tutoretzapeko etxe batean, herrixka edo zentro batean bizi bada, inguruko emakumeak aukeratu daitezke, hala nola, hezitzaileak edo adin handiagoko neskak.

¡Kontuz! Gogoratu familia guztiak ez direla berdinak; horregatik, gutziz garrantzizkoa da hasi baino lehen, adingabeko bakoitzaren egoera ezagutzea. Ideia zera da: ingurune hurbileneko emakumeei gizarte balioa eman eta honen garrantzia nabarmentzea.

## 4. Errekreoan:

Posta elektronikoaren bidez, El mundo raro de Mermel materiala jaisteko esteka bidali.

### Ipuin liburua:

<https://fe.ccoo.es/c5ddb70303a7425af5546e4102507e9e000063.pdf>

### Gelan erabiltzeko materiala:

<https://fe.ccoo.es/2dd86628b2043a0a81854f6d041cfbde000063.pdf>  
“En el recreo” izeneko 6. Unitateari ekingo diogu. Ikasgelan bertan edo birtualki lan egiteko orientabideak jarraitu. Aurretik, gelakide guztiekin ipuina irakurriko da.

## 5. Kontuz, kontuz:

Posta elektronikoaren bidez, El mundo raro de Mermel materiala jaisteko esteka bidali.

### Ipuin liburua:

<https://fe.ccoo.es/c5ddb70303a7425af5546e4102507e9e000063.pdf>

**Gelan erabiltzeko materiaola:**

<https://fe.ccoo.es/2dd86628b2043a0a81854f6d041cfbde000063.pdf>  
 “Cuidadote, cuidadín” 9 Unitateari ekingo diogu. Ikasgelan bertan edo birtualki lan egiteko orientabideak jarraitu. Aurretik, gelakide guztiekin ipuina irakurriko da.

**Lehen hezkuntza****Helburuak:**

Generoaren arabera, ematen diren gizarte ezberdintasunez jabetzea.  
 Berdintasuna ezagutu eta barneratzea, askeagoak egiten gaituen aberastasan osagai gisa.

Emakumeen lanbideei garrantzia ematea.

**1.** Ipuina idazten: Eranskinean jasotako binetak erakutsi eta taldean irakurriko ditugu, gero elkarriketei buruzko eztabaida izango dugu. Ondoren, horiek estali eta talde txikitan elkarriketak bete beharko dituzte.

**2.** Martxoaren 8ari buruzko idazketa ariketa: zergatik ospatzen den eguna, zer gertatu zen mundu osoak data hori erabakitzeke, martxoaren 8ak zer esanahi duen...Taldea bakoitzak lan bat egingo du; horretarako, NBEaren orrialdeetan, Emakumearen Institutuarenean edo interesgarritzat jotzen duen edozein web instituzionalean informazioa jasoko du.

**3.** Berdintasunerako eta hizkuntz inklusiborako hiztegia: Gelarako eta ikastetxerako, inklusiboa den hiztegia burutuko da, sexismotatik aske eta genero ikuspegitik begiratuta. Gelan burutzeko adibideak ekarriko dira. Hala nola:

\* “Pertsonal osoa ikasturte bukaerako festara joan zen, zuzendariarengandik hasita garbitzaileenganaino”.

• Honako terminoak aldatuko ditugu: zuzendari-zuzendaritza, ikasleak-ikasleria, garbitzaileak-garbitzetarako pertsonala; horrela, termino sexistak baztertu eta inklusiboagoa den hizkuntza erabiltzen joango gara.

**Kontuan hartzekoa:**

Pertsonentzat kaltegarri, mingarri eta deserosoa izan daitekeen hizkuntza saihesten saiatuko dugu: errealitate guztiak kontuan hartu: desgaitasunen bat duten pertsonengan, aniztasun sexu-afektiboetan, identitateetan eta genero adierazpenetan pentsatu.

Kontuz! Hizkuntz binarioa baino ez erabiltzearen, pertsona hitza aurretik jar dezakegu, guztiak erreferentziatuak senti daitezten. Pertsona ekintzaileak, pertsona eskatzaileak, pertsona interesdunak, pertsona nagusiak...

**4.** Feminismoaren alde, abestuz eta dantzatzuz: Munduko lurralde guztietako talde feministak entzun eta ezagutuko ditugu. **4.1. Talde feministaren mundu-izaerari buruzko hausnarketa egingo dugu:**

<http://www.managuafuriosa.com/cantantes-feministas-para-escuchar-en-cuarentena/>). Ondoren eta taldeka, gutxienez hiru ahapaldi dituen rap feminista bat konposatuko dugu.

**Bigarren Hezkuntza****Helburuak:**

\* Taldeka lan egitea, beste pertsonengana eta azaltzen diren iritzi ezberdinen aurrean, begirune jarrera erakustea.

\* Elkarbizitza eta berdintasun harreman on batzuren oinarriak ulertu eta bidea ematen dieten arauak barneratzea.

\* Gelan zein gizartearen dagoen aniztasuna ezagutu, ulertu, errespetatu eta



positiboki baloratzea.

\* Indarkeria matxista sustatzen duten ereduak baztertzea (gizontasun eta mendekotasun estereotipoak), guztiontzat negatiboak baitira.

\* Bikotearen harremanetan, begirunea eta berdintasuna ezinbesteko irizpideak direla ulertzea.

\* Pertsonen giza- eta gizarte-balioetako prestakuntza integralerako hezkuntzaren paperaren garrantziaz jabetzea eta beraien arteko harremanena.

\* Sexuen arteko berdintasunarekin bat datorren hiztegia erabiltzea.

**1.** Komiki bat egin dezagun: Binetekin eta bakoitzari dagozkion elkarrikiztekin feminismoei eta berdintasunari buruzko orri bateko komikia egitea.

**2.** Kontzeptuen esparrua: Inklusiboa eta sexista ez den hiztegia eta hizkuntzari buruzko informazioarekin zera proposatuko dugu: prentsako albisteak birmoldatzea, matxistak, sexistak, diskriminatzailleak edo pertsona batzuentzat iraingarri izan daitezkeen adierazpenak detektatzeko. Artikulu edo testu horiek aztertuko ditugu eta berdintasun irizpideekin, hots, inklusiboak eta sexistak ez direnak, bat ez datozen idazkera aukeratuko dugu.

**3.** Inklusioaren aldeko terminoen glosategia burutzea: Adostuta, glosategi bat elaboratuko dugu, gelan burutuko diren lanetan erabili eta ikasturteko azken notarako balio izango duena.

**4.** Zinea eta emakumeak: Zinea edo zenbait filmetan emakumeek izan duten papera aztertzen lagunduko diguten filmen zatiak erabiliko ditugu. Bechdel-en testaren emaitza komentatuko dugu, filmak matxistak diren ala ez diren ebaluatzeko metodoa.

**5.** Zine forum-a: Las sufragistas. Ikastetxeen edo ikasgelan filma proiektatuko dugu eta, ondoren, bozkatzearen garrantziari buruzko gaia bideratu dezakeen emakumeren batekin eztabaida sortuko dugu.

## Jarrera orokorra ikastetxean

Berdintasunaren aldeko manifestua: Idatzi bat landuko dugu, hilabete honetan ikastetxean ekitaldi bat antolatzeko. Ahal bada, martxoaren 8arekin bat etorriko da baina, ikastetxean berdintasuna sustatzeko beharra lantzeko edozein egunek balio du. Gida honen hasieran azaldu-tako jarduera nagusia izango da.





[www.fe.ccoo.es](http://www.fe.ccoo.es)